

2019ko otsaila



ibotuz

**2020 PARTE-HARTZE
IZAERAKO
AURREKONTUAK
PRESUPUESTOS
PARTICIPATIVOS
2020**

**2. FASERAKO proiektuak
hautatzeko justifikazio txostena**

Hirugarren urtez segidan, Getxok abian jarri du 2020 ekitaldirako aurrekontu parte hartzaileen prozesu bat.

Prozesua **2019ko urtarrilaren 12tik 23ra egin da**. Bertan Getxon erroldatutako 16 urtetik gorako edozein pertsonak hartu zezakeen parte eta/edo ordezkatu zezakeen elkarte, fundazio, sindikatu, enpresen elkarte, profesionalen elkargo, zuzenbide publikoko korporazio edota bestelako erakunde bat, baldin eta nortasun juridikoa badute, antolamendu juridikoarekin bat etorritik.

Bertan parte hartzeko honako **bide** hauek jarri dira eskuragarri:

- ✓ Webgunearen bidez: Getxo.eus.
- ✓ Kutxak Fudurako, Gobelako eta Andra Mariko kiroldagietan eta Herritarren Arretarako Bulegoetan.
- ✓ Galdetegia bidalita, eskaneaturik edo argazkia aterata, hona:
gobernuirekia@getxo.eus
- ✓ Postontziak jarri dira Algorta, Areeta eta Bidezabal metroko geltokien inguruan.

✓ Honako lekuetan jarritako karpenei bidez:
Asteazkenean, urtarrilaren 16an, Bidezabal metro geltokiaren ondoan.

Ostegunean, urtarrilaren 17an, Bidezabal metro geltokiaren ondoan.

Ostiralean, urtarrilaren 18an, Areeta metro geltokiaren ondoan.

Prozesuan honako gai hauekin lotutako proposamenak onartu dira:



- ✓ Kultura: jaialdiak, azokak eta aretoak, liburutegiak eta abar.
- ✓ Euskara: euskaltegiak, berbalaguna, zerbitzuak, kanpainak, prestakuntza aisialdia, euskalduntze hitzarmenak eta abar.
- ✓ Berdintasuna: emakumeen aurkako indarkeria, sexu informazioaren bulegoa, ahalduntze eskola, gizonentzako lantegiak, migratutako emakumeen topaketak, emakumeen arteko kultura arteko elkarrizketak, ikastetxeetako esku hartzeak, kanpainak eta abar.
- ✓ Gazteria: dirulaguntzak eta laguntzak, gazteria foroa, gazteentzako informazio puntuak, gaztelonjak programa, ikastarioak, hiri udalekuak, sariak, lehiaketak, bekak, gaztelekua eta ludoteka, eta abar.
- ✓ Ingurumena: Getxo hiri berdea, tokiko Agenda 21, hondartzak, mugikortasun jasangarria, hondakinak eta birziklatzea eta abar.
- ✓ Gizarte zerbitzuak: laguntza soziala; esku hartze zerbitzua hurrekin, gazteekin eta familiarekin; laguntza psikosoziala, mendekotasunen prebentzioa, zaharren egoitza, immigrazio eta kultura artekotasun unitatea eta abar.

Gainera, proposamen horiek baldintza batzuk bete behar zituzten:

1. Udal eskumenekoak izatea.
2. Dagokion aurrekontu ekitaldian amaitzea.
3. Teknikoki eta/edo ekonomikoki bideragarriak izatea.

Lehen fase horren ondoren, udal zerbitzu teknikoek aztertu egingo dute herritarrek aurkeztutako proposamenen bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa. Baldintza guztiak betetzen zituzten proposamenak proiektutzat jo ziren.

Getxoko Udalak hautatutako programen behin betiko zerrenda ezagutaraziko du, eta horiei Getxoko herritarrek lehen fase batean emango diete bigarren fase batean.

Behin proiektua amaitutakoan, herritarrei itzultzeko txosten bat egingo da, eta bertan justifikatuko dira hartutako proposamenak eta erabakiak.

Parte hartzearen datuak:

Jarraian lehen faseko prozesuari lotutako parte hartzea aztertu da:

Guztira **460 galdetegi** jaso dira eskuragarri dauden partaidetza bideen bitartez.

- ✓ **283 galdetegi HABetan eta Andra Mariko eta Fadurako kirodegietan jarritako kutxetan**, eta horretarako Algorta, Bidezabal eta Areeta metro geltokietako sarreretan horretarako jarritako postontzietan.
- ✓ **158 bitarteko telematikoen bidez**: Webgunea eta posta elektronikoa.
- ✓ **64 informazio-partaidetza karpetan**.

Parte hartzaileen generoari dagokionez, **jasotako ekarpenen % 45 gizonen egin dituzte, % 51, emakumezkoek, eta % 4k ez dute datua eman edo beste aukera batzuekin identifikatu dute bere burua.**

Batez besteko adina 60 urte izan da.

Parte hartzaile guztiak Getxon errolatuta daudela eta 16 urtetik gora dituztela egiaztatu ondoren, galdetegi batzuk baztertu egin dira, eta **baliozko 444 galdetegi gelditu dira**. Horiek hurrengo analisi fasera igaro dira.


Ekarpentak eta proposamenak:

Informazioa kodifikatu ondoren, **guztira 1021** ekarpen jaso dira proposamen moduan, 2019ko aurrekontu parte hartzaileen prozesuaren bigarren fasean integratzeko.


Guztira: 1021 EKARPEN

UDAL TEKNIKARIEK AZTERTU ONDOREN, GUZTIRA 45 PROPOSAMEN BALIOETSIKO DIRA 2020KO GETXOKO AURREKONTU PARTE HARTZAILEEN BIGARREN FASERA IGAROTZEKO

Ekarpen horiek honela sailkatu dira, dagokien udal alorraren arabera:



Bigarren fasera igaro diren ekarpentak honela daude sailkatuta, dagokien alorraren arabera.



Proiektuak hautatzea

Emaitzak aztertu ondoren, ekarpenak eta proposamenak udal alor arduradunen artean banatu ziren, proposamen horiek aztertzeko beren bideragarritasunaren arabera, herritarrek proiektuei lehentasuna emateko bigarren fasera igaro zitezten, 2019ko aurrekontu parte hartzaileen esparruan.

Alor tekniko bakoitzak jasotako proposamenen analisi bat egin zuen, eta horietatik guztietatik, asko kendu dira, **honako arrazoi hauek** tarteko:

1. Ez dira udal eskumenekoak.
2. Udalak zerbitzu hori ematen du dagoeneko.
3. Ez dago jasota aurrekontu parte hartzaileen esparruan aurreikusitako ekintzetan.
4. Ezin dira osorik egikaritu aurrekontu parte hartzaileetan ekitaldi honetan ezarritako partidaren kargura.
5. Jasagarritasun ekonomikoa eta finantzarioa ez da justifikatzen. Gastu errepikatua edota jarraitua eragiten dute zerbitzuak emateari, langileak kontratatzeari, mantentze-lanak burutzeari eta abarri dagokionez.
6. Interes partikularra interes orokorraren gainetik jartzen dute.
7. Ez dute udalerraren lurralde oreka bermatzen.
8. Edukia legez kanpoko, iraingarria edo baztertzalea da.
9. Ez dagokio, proposamenek zehaztasuna falta dute.
10. Proposamenek ez dakarte eraginik aurrekontuan. Hau da, horiek aplikatzeak ez dakar gasturik.

Analisi hori egin ondoren, 8 proiektuko zerrenda bat lortu da. Proiektu horien ezaugarriak eta lehen fasean jasotako babesak

tarteko, aurrekontu parte hartzaileen bigarren fasean sartu daitezke.

Honako hauek dira proiektuak:

PROPOSAMENA	Ekarpen kopurua	AURREIKUSITAKO KOSTUA
Areetako geltokiaren plaza egokitzea	18	600.000 €.
Haurrentzako parke bat estaltzea	17	300.000 €.
Portu Zaharreko zabalgunea hobetzea, kirol erabilerako guneekin	2	50.000 €.
Bizikletak aparkatzeko lekuak Algortako hainbat tokitan	3	2.250 €.
Seinalizazio bidezko informazio gehiago udalerrian	1	300.000 €.
Aixerrota errotaren kanpoko argiteria	1	18.000 €.
Lorategi bertikalaren proiektu pilotua udal eraikin batean	2	20.000 €.
Algortako geltokiko plazako lur azpiko sarrera egokitzea	1	22.000 €.